

Maupassant-en ipuinak

Javier Rojo

"Fantasiazko ipuinak"
Guy de Maupassant
euskaratzailea: Josu Zabaleta
Ibaizabal, 2000

Guy de Maupassant (1850-1893) ipuingintza modernoaren aitzindarietako bat izan zela gutxi jar lezakete dudatan. Orain haren "Fantasiazko ipuinak" irakur ditzakegu, Josu Zabaletak egindako itzulpenean. Fantasiazko ipuinak deitzen dira hauek, baina fantasia bera baino gehiago, bestelako osagaiak agertu ohi dira ipuin hauetan. Badirudi Maupassant-ek ez ziola irudimenari, besterik gabe, hegan egiten utzi nahi, istorio hauek egitean. Badirudi errealitate arruntaren atzean izkutatzen diren gertaera azalezinetan sakondu nahiago izan zuela. Izan ere, arlo hau dela-eta, askotan agertzen diren gai berezi batzuek kezkatzen zuten idazlea. Zentzumenen mugak, adibidez. Ipuin askotan errepikatzen duenez, zentzumenen aldetik gure gorputzak dituen mugaz bestelakoak izango balira, munduaz dugun ezagutza zeharo desberdina izango litzateke. Hortaz, itxuraz naturaz gaindikoak diren gertaerak naturalak izango lirateke oso, muga horiek gainditua. Eromena da beste gai hoietako bat, batez ere erotzeko prozesuan dagoen pertsonaiaren bilakaera azaltzen duelarik. Bestaldetik, honelako ipuinetan ez da faltako noizean behin umore beltza. Ipuingitzaren arloan maisu klasiko bat irakurri nahi dutenentzat, beraz, ezinbesteko liburua dugu hau.

El Correo, 2001-04-04